



Kontabilitateak behar luke bihotzik?

Maitasunaren ekonomia kudeatzeko lanabesak: Ikastolen kasua

Aitor Bengoetxea - Unai del Burgo - María Jesús Luengo
UPV/EHUko GEZKI eta UEUko kideak

Ekonomia soziala, maitasunaren ekonomia

Ekonomia eta maitasunaren arteko loturak planteatzea lelokeria hutsa dela irudi. Hala ere, Ekonomia Sozialak gizaki berekoiak markatzen duen logikaren aurrean beste jokabide bat proposatzen du: beste norbanakoekin ekimen konkretu batean elkartzea guztiontzako (eta gizartearentzat ere) ongizate komuna lortzeko!



1

Maitasunaren kudeaketa orekatua

Ekonomia Sozialeko Erakundeetan (ESE) helburu ekonomiko eta sozialen artean oreka bat egon behar du. Helburu ekonomikoak helburu sozialak lortzeko bitartekoak besterik ez dira. ESE-ek oreka konplexu hori kudeatu behar dute. Zelan? Pertsonen intuizioarekin edo kontabilitatearekin!



2

Kontabilitateak behar luke bihotzik?

Ohiko kontabilitate sistemek ezin dituzte erakundeen helburu sozialak neurtu. Dirua besterik ez dute neurtzen. Baina ESE-ek maitasuna neurtu behar dute. Zelan? Kudeaketarako adierazle-sistemekin (KIS): aldagai monetario eta ez monetarioak neurtzen dituzten kontabilitate-tresnak!



3

Maitasunaren ekonomia kudeatzeko lanabesen bila

Non bilatu? Ikastoletan! ESE-entzat KIS orekatuen aplikagarritasuna aztertu ahal izateko ikerketa enpiriko esploratzailea, deskribatzailea eta proposatzailea gauzatu dugu, teknika kuantitatibo eta kualitatiboak erabiliz. Ikastolen kooperatiba esperientziaren kasua aztertu dugu!



4

Ikastolen kooperatiba esperientziaren kasua

Ekonomia Sozialaren baitan, publiko/pribatu dikotomian kokatzen den esperientzia da Ikastolena, euskal kooperatibismoaren erreferente nagusienetakoa, hezkuntza eta euskal kultura lotzen dituen herri mugimendua. 3 eremu administratiboetako 100 ikastola baino gehiago batzen dituen Kooperatiba Europear gisa eratua. Kudeaketa aurreratua ipar (erabateko kalitatearen filosofia), barne-elkartasunean oinarritutako taldea da ikastolena, hezkuntza komunitatea osatzen duten kolektibo guztiak (familiak eta langileak) bere praxian txertatzeko gaitasuna duena.

5

Gure proposamena!

Lortutako emaitza, ikerketa-faseen ondorioa da. Esplorazioa (hurbileko ikastola bateko zuzendariari elkarrizketa), deskripzioa (inkesta 67 ikastolei), balorazioa (5 zuzendariari elkarrizketa sakonak), proposamenaren lanketa (Delphi analisia 9 adituekin) eta kontrastea (Ikastolen Elkarteko goi karguekin).

Ikastolen Kudeaketa Orekatuaren Sistema. 15-25 adierazleak osatutako lanabesa, multidimentsionala (aldagai monetario eta ez monetarioak, gehienak kualitatiboak), ikastolen kooperatiba-ereduarekin koherentea (euskal kultura, hezkuntzaren eraldaketa, komunitatea) eta mugimendu osoan aplikagarria.

6



Gure hausnarketa!

Ondorioak. Arazo teoriko bat (maitasunaren ekonomiaren kudeaketa), praktikan ebatzi dugu, Ikastolentzat espreski diseinatutako lanabes baten bitartez.

Etorkizuna. Gure metodologiaren irizpide orokorrak sektore desberdinetako ESE-etan ere aplika daitezke (adibidez, Euskalgintzan).



7